



22-23 ikasturtea

Heziketa digitala



| | |
|--|----|
| macsonrisas-i buruz | 2 |
| 2022-2023 ikasturtean egindako prestakuntzak | 3 |
| Ondorioak | 4 |
| LH ondorioak | 4 |
| DBHn ateratako ondorioak | 9 |
| Irakasleoa | 15 |
| Familiak | 15 |
| Gomendioak | 17 |
| Familiantzako gomendioak | 17 |
| Ikastetxeentzako gomendioak | 19 |
| Eskertza | 21 |



macsonrisas-i buruz

macsonrisas Wema Corp SLUren marka komertziala da. Une honetan hezkuntzako lau profesionalak, gizarte-langile batek, irakasle-ikasketetan bi graduatuk eta marketing-en graduatu batek osatzen dute, eta ilusio handiarekin garatu eta ematen dituzte prestakuntzak.

Gure helburua teknologiaren erabilera kontzientea, segurua eta osasungarria sustatzea da. Online munduan adingabeen babesa sustatzea eta mundu digitalean bizikidetzeta eta tolerantzia bermatzea ere bilatzen dugu. Egunero ikusten ditugu adingabeek aurre egin behar dituzten arriskuak, bai eta teknologiaren erabilera inkontzienteak dituen ondorioak ere.

Ikastetxeetan saioak ematen ditugu, eta ikasleei, familiei eta irakasleei zuzentzen dizkiegu, adingabeei jarraibide berdinak iritsi dakizkien eta horrela hobeto integratu ditzaten.

Gainera, hezkuntza digitalarekin lotutako hitzaldiak eta prestakuntzak ematen ditugu udaletan, elkarteetan eta enpresetan: zibersegurtasuna, sare sozialen eta online jolasen erabilera kontzientea, indarkeria digitala, arriskuak eta prebentzioa sare sozialetan eta online jolasetan, sare sozialak eta osasun mentala, zibejazarpena, kontrol digitala bikotean...

Arabian, Vital Fundazioaren "Har ezazu kontrola" hezkuntza digitalaren proiektua koordinatzen dugu. Ikastetxe guztietara joaten gara, eta Arabako Justizia Saileko Talde Psikosozialarekin elkarlanean aritzen gara, delituak egin dituzten eta bitartekotza-prozesuan dauden adingabeei prestakuntza emanez. Tutoretzapeko etxebizitzetara ere joaten gara adingabeak eta hezitzaileak prestatzera.

Gaur egun, erakunde, fundazio edo enpresen bila gabilta, gure hezkuntza digitaleko proiektua beste probintzia batzuetan ezartzeko, ikastetxeek doan parte har dezaten eta, horrela, ahalik eta ikastetxe gehienetara iritsi gaitezten.

2022-2023 ikasturtean egindako prestakuntzak

Ikasturte honetan 84 ikastetxetara joan gara, eta guztira 1.543 saio egin ditugu Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasleekin. Lehen Hezkuntzan saioak 3. mailatik aurrera egiten ditugu. 38 saio egin ditugu irakasleekin, eta 83 saio familiekin. Prestakuntzak batez ere Euskadin eta Nafarroan egiten ditugu, baina beste probintzia batzuetara ere joan gara (Burgos eta Errioxa).

Ikasturte honetan ere hainbat kultur etxe, liburutegi, gazteleku eta enpresatara joan gara hitzaldiak eta prestakuntzak ematera. Aurreko ikasturtean bezela EHUra (Euskal Herriko Unibertsitatea) joan gara, laster LH eta DBHko irakasleak izango direnekin saioak egitera.


2022-2023 ikasturtea

1543 saio ikasleekin

83 saio familiekin

60 saio irakasleekin

www.macsonrisas.es



● LH ● DBH ● Lan Hez/Batxiler

Ondorioak

LH ondorioak

Lehen hezkuntzan, 3. mailatik aurrera, oro har, mundu digitala kontrolik gabe erabiltzen dute. Ikastetxe askotan adingabe batzuek erabilera-denbora kontrolatzen dute, eta nahiz eta gomendatutakoa baino denbora luzeagoan erabiltzen badute ere, denboraren kontrol hori positibotzat ematen dugu. Azken urteetan ohikoa den bezala, Lehen Hezkuntzako 3. mailan jada smartphone propioa duten haurrak ikusten ditugu, TikTok kontu pertsonalekin, Youtube eta Twitch ikusten, eta nagusientzako bideojokoetan jolasten, horietako asko 18 urtetik gorakoentzat, hala nola GTA edo Call of Duty. Lehen hezkuntzako haurren artean oso ezaguna den GTAr buruz hitz egiterakoan, batzuek diote bideojokoan jolasten dutela jendea hiltzeko eta bideojokoaren mapan dagoen “klub”era joateko. Bertan, emakume birtualak gerritik gora biluzik ikus ditzakete, baita prostitutekin areto pribatuetan sartu ere. Oso kezkarria da hain gaztetan emakumeak sexualitate eta prostituziora hurbiltzea.

Lehen Hezkuntzako 3. mailako haurren herenak dio smartphone propioa duela. Hirugarren mailako eskola guztietan daude TikTok kontu pertsonala duten haurrak; kasualitatez, smartphone propioa duten haurren kopuruarekin bat datoz. Eta gora egin ahala, ehunekoak modu kezkarrian igotzen dira, Lehen Hezkuntzako 6. mailan dagoeneko bi herenek smartphone propioa dute eta TikTok erabili ohi dute. Gehienek Twitch eta Youtube asko ikusten dute, eta ia gela guztietan 18 urtetik gorakoentzako jokoetan aritzen dira.

Irakasle askok esaten digute lehen hezkuntzako 2. mailan haurrak daudela TikTok-eko bideoak ikusten, TikToken edo Youtubeko Shorts-etan (bideo laburrak).

Gehien erabiltzen dituzten sare sozialak TikTok, WhatsApp eta YouTube dira. Youtube oso normalizatuta dago, familia eta ikastetxe gehienek ez dakite Youtube 13 urtetik gorakoentzat dela eta inolako kezkarik gabe erabiltzeko aukera ematen dute.

Atzetik datoz Instagram, Twitch eta Snapchat. Batzuek Discord, eta gutxi batzuk Youtube Kids erabiltzen dituzte, azkeneko hau bai, hurrek erabili dezakete. Gehien erabiltzen diren jokoak Roblox, Minecraft, Stumble Guys, Fortnite, Brawl Stars eta Fifa dira.

Erabilera-denborari dagokionez, askori denbora kontrolatzen badiete ere, gehiegizko erabilera egiten dute eta benetako adikzio-arazoak dituzten haurrak aurkitzen ditugu. Deigarria iruditu zitzaigun Lehen Hezkuntzako 5. mailako haur baten kasuak. Ikaskide guztiek blokeatuta zuten, goizeko hiruretan Robloxen jolasteko deitzen zitelako. Hau bezelako kasuak orokorrak ez diren arren, horiek ikusteak impaktu handia dute guregan.

Lehen hezkuntzako ikasleen erdiak dio astean zehar bi ordu baino gehiago pasatzen dituela pantailakin eskola-ordutegitik kanpo, eta kopuru kezkarri batek (%10ak) dio astean 5 ordu baino gehiago pasatzen dituela.

Asteburuetan, Lehen Hezkuntzako haurren bi herenek diote 2 ordu baino gehiago pasatzen dituztela pantailen aurrean. %20k dio 5 ordu baino gehiago pasatzen dituela, eta % 10ek egunean 8 ordu baino gehiago pasatzen dituela. Gehiegizko erabilerarako joera ikusten dugu, nahiz eta kasu askotan gurasoen kontrolerako aplikazioek denbora mugatzen duten. Ikasle askok onartzen dute denboraren mugaketa hori adikzioa ez sortzeko, baina, ahal izanez gero, denbora gehiago igaroko lukete.

Erabilera hain goiztiarra eta gehiegizkoa denez, gizarte-presioa sortzen da lehen hezkuntzako adingabeen artean, era guztietako edukiak ikusten hasteko eta smartphoneak gero eta lehenago erabiltzen hasteko. Ikastetxe askotan esaten digute ikasketa edo jarrera arazoak dituzten lehen hezkuntzako haurrek etxean pantailak erabiltzerakoan muga gutxiago izaten dituztela.

Aurten eskoletan etxeetan zenbat pantaila dituzten galdetu dugu; gehienek diote etxean 6 pantaila baino gehiago dituztela, eta askok diote etxean 10 pantaila baino gehiago dituztela. Azterlan askok erakusten dute lotura zuzena dagoela etxeketan pantaila asko izatearen eta pantailen erabileraren denbora gehitzearen artean.

Eduki desegokiak kontsumitzearen ondorioak

Lehen Hezkuntzan arrisku handienetako bat adinerako desegokiak diren edukiak kontsumitzea dela ikusten dugu (alkohola, drogak, irainak, errespetu-faltak, indarkeria, eta abar). Eduki horiek oso eragin handia dute haiengan, adibidez, haien artean erlazionatzeko hizkuntza eta jarrera toxikoak barneratu eta erabiliz. Irainak eta errespetu faltak oso modu kezkarrian normalizatzen ari dira, eta, oro har, adinean aurrera egin ahala gehiago zabaltzen eta larriagotzen ari dira. Youtuberren edo Streamerren eduki asko kontsumitzen dute. Eduki horietan etengabe iraintzen diote elkarri, eta elkarri errespetua galtzen diote, jarrera horiek lagunen arteko txantxak bezela normalizatzen dituzte.

5. eta 6. mailako gela askotan WhatsAppen erabilerak ekarritako arazo asko ikusten ditugu. WhatsAppen erabilerak adingabeen artean gatazkak sortzea ez da harrizkoa, izan ere, European erabiltzeko baldintzetan ezarritako adina 16 urtekoa da.

Lehen Hezkuntzako WhatsApp taldeak oso kaotikoak dira: irainak, mehatxuak, hizkera lotsagabea, jazarpen digitala, informazio pribatuaren erakusketa, baimenik gabe beste pertsona batzuen irudiak erakustea, memeak eta stickerrak ikaskideen irudiekin... oso erabilera desegokia egiten dute.

Amei, beti amak dira, 6. mailako semeen WhatsApp taldeetan zertan dabilzan ikustea bururatzen zaienean, zur eta lur geratzen dira mezuetan irakurtzen duen guztiarekin eta audioen bidez entzuten duenarekin. Duela gutxi saio batera etorri zen ama batek honako hau esan zuen: “Oso gaizki sentitu nintzen, p* zor*-tik gorako hiztegia erabiltzen zuten”.

Tanta-jario kezkarriak

Lehen hezkuntzan kezkatzen gaituzten gauzak ikusten hasi gara, nahiz eta oraindik ez dauden orokortuta.

Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako haurrak ikusten ari gara 18 urtetik gorakoentzako plataformak erabiltzen, hala nola Omegle (TikTok programari esker ezagutzen dute). Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrek, argazkiak biluziak trukatu dituzte, irudi intimoak gelako talde-txatetan zabaltzen dituzte, edo itxuraz kaltegabeak ematen duten app-etan argazkiak biluzik eskatzen dizkiete. Tiktok-en bideoak igotzen dituzten neskek heldu askoren komentario sexista asko jasotzen dituztela esate digute.

Lehen Hezkuntzako 6. mailan identitatearen ordezkapen kasuak ikusten ditugu, non norbaitek TikToken kontu bat sortzen duen beste pertsona baten argazkiarekin, pertsona horren itxurak eginez, beste pertsona batzuk iraintzen eta haien izen ona kaltetzeko txorakeriak esaten hasten diren.

Lehen hezkuntzako 4. eta 5. mailako haurrek Youtubeko kanalak irekitzen dituzte, baina jasotze dituzten irainak eta mehatxuak direla eta azkenean ixten dituzte.

Instagramen 5.000 jarraitzaile baino gehiago dituzten lehen hezkuntzako hainbat haur ere ikusi ditugu.

Teoriatik praktikara tarte bat dago

Teoria oso ondo dakiten arren, ez dute praktikan jartzen, azken finean haurrak direlako. Ezin dute teknologia modu kontzientean erabili etengabe gainbegiratuta ez badaude, ez dute horretarako heldutasunik.

Denek dakite ez dugula ezezagunekin hitz egin behar eta are gutxiago informazio pribatua eman; hala ere, ezezagunekin zenbatek hitz egiten duten eta online jokoetan zenbatek informazio pribatua ematen duten galdetzen dugunean, askok eskua altxatzen dute, beti. Haur talde handi batek bideoak argitaratzen ditu TikTok webgunean, eduki asko partekatuz, baita ikastetxeko uniforme jarrita ere.

Ikastetxe batean, 6. mailako haur batek Fortniten beste mutil batekin askotan jolasten zuela esan zigun, eta hark opariak ere egiten zizkiola. Egun batean mikrofonotik gizon baten ahotsa entzun zuen, eta engainatzeko ahots-aldagailu bat erabiltzen zuela konturatu zen. Helduak diren ezezagunek haurrekin harremanetan jartzeko haur itxurak egiten dituztela entzutea orokortzen hasi da.

Denek dakite gaizki dagoela iraintzea, besteenganako errespetua galtzea, baina galdetzen dugunean haserretzen direnean zenbatek besteak iraindu eta mehatxatzen dituzten, gehienek eskua altxatzen dute, beti.

Denek dakite ezezagunei ez zaiela erabiltzaile-kontua eta pasahitza eman behar, arriskutsua dela, baina, gutxi gorabehera, online bideojokoetan jolasten diren lehen hezkuntzako haurren erdiei kontua lapurtu diete hori egin ondoren. Gure arreta deitu zuen Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle bati Fortniten 300€ko iruzurra egin izanak.

Bideojokoak lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan

Familia gehienek ez dute begiratzen haur eta gazteak zein bideojokotan jolasten ari diren, eta horrek arazo asko sor ditzake. Jolas askoren ezaugarriak direla-eta, adin jakin batetik aurrera gomendatuta badaude, adin hori bete arte bideojokoa kaltegarria da haur edo gaztearentzat.

Eduki bortitzez gain, ezezagunekin jolasteko aukerak eta horrek dakartzan arrisku guztiez gain, bideojoko askok jada ausazko jokoen eta kasinoen elementuak txertatu dituzte haien dinamiketan. Batez ere, “Lootbox” edo Harrapakin Kutxen eta Fifa jolasaren kartazalen bidez.

Praktika horiek Europan oraindik ez daude araututa eta bakarrik herrialde jakin batzuetan debekatu dituzte, adibidez Belgikan. Izan ere, beren adinerako gomendatutako jolasetan jokatuta ere, praktika horietan eror daitezke. Inglaterran LootBox-ak aztertzerakoan, LootBoxak zituzten jolasen %97ak 12 urtetik gorakoentzat egokiak zirela ikusi zuten, eta %53ak 7 urtetik gorakoentzat egokiak zirela. Apple eta Android-en joko ezagunen %80k Lootbox-ak dituzte, eta Steam plataformako joko ezagunen % 71k Lootbox-ak dituzte. Horrek adierazten digu, momentu honetan adin gomendatuak arautzen dituzten elkarteek, adinak ezartzeko oraindik ez dituztela gauza hauek kontuan.

Europar Batasunaren ikerketan baten arabera, harrapakin-kutxak edo LootBox-ak ez daude nahitaez haurrei zuzenduta. Hala ere, haurrentzako jolasak daude, harrapakin-kutxak dituztenak, eta helduei zuzendutako harrapakin-kutxak dituzten jolasak daude, baita haurrek jolasten dituztenak ere. Beste ikerketa baten arabera, “bideojokoen harrapakin kutxek duten partaidetzaren elkarte demografikoek mendekotasun eta arazo handiko beste jokabide batzuk islatzen dituzte, hala nola joko desordenatua, drogen eta alkoholaren abusua”. Eta beste txosten batek, Plymouth eta

Wolverhampton-eko unibertsitateetako ikertzaileek egina, harrapakin-kutxak "egituraz eta psikologikoki, ausazko jokoen antzekoak" direla aurkitu zuten.

Bideojokoen enpresek bideojokoetan jolasten duten haur eta nerabe gehienek LootBox-ak modu batera edo bestera erabili behar izatea lortu dute; izan ere, askotan bideojokoak berak batzuk oparitzen dizkizu (eta ezin da saihestu) eta beste batzuetan misioen sariak formatu horretan etortzen dira. Bideojokoen enpresen diru sarrera gehienak LootBox-etatik datoz, eta, gainera, erabiltzaileen %5a dira diru gehien sortzen duena da, marketing eta monetizazio-teknika oldarkorren erabileraren ondorioetako bat ludopatia baita.

Saioetan parte hartzea

Oro har, Lehen Hezkuntzan oso ondo hartzen dituzte horrelako saioak, interes handia erakusten dute eta dinamiketan asko parte hartzen dute.

Erabilera-denboran eta edukietan dagoen deskontrol orokorraren ondorioz, funtsean, nahi dutena egiten dute inork ezer esan gabe. Horren ondorioz, haur askok erabateko ezjakintasuna dute sare sozialen eta online jokoen arriskuei buruz, eta aldi berean, ezagutza eta kontrol sententzia dute, eta sententzia hori oso arriskutsua da, faltsua delako. Ez dute ideiarik ere, baina badakitela uste dute. Guardia jaisten dute kontrolatzen dutela uste dutelako. Askotan harrokeriazko jarrera hartzen dute eta saioetan transmititzen dizkiegun gauza asko ukatzen dituzte, modu negatiboan eta batzuetan mespretxuz erreakzionatzen dute, eta bakarrik haien ikuspuntua onartzen dute.

Hala ere, prestakuntzak aurrera egin ahala, harridura aurpegiak ikus daitezke, haien arteko begiradak, eta kasu batzuetan sare sozialak ezabatzeari edo kentzeari buruzko iruzkinak ere entzun ditugu. Prestakuntza askotan, ikasleak gehiago joango ote garen galdetzen digute, bideojokoen eta sare sozialen beste aurpegi bat ikusteko prestakuntza oso interesgarria eta baliagarria izan zaielako.

DBHn ateratako ondorioak

DBHn pantailak gehiegi erabiltzen direla kezka handiarekin ikusten dugu, eta nerabe askok mendekotasun-koadroak dituztela ikusten dugu. DBHko geletan galdetzerakoan, gutxi gorabehera ikasleen bi herenek astean zehar egunean 2 ordu baino gehiago pasatzen dituela esaten du, eta ia heren batek egunean 5 ordu baino gehiago pasatzen ditu. Asteburuetan, DBHko ikasleen %80k dio egunean bi ordu baino gehiago pasatzen dituela pantailen aurrean, (ia erdiak) egunean 5 ordu baino gehiago pasatzen dituela dio, eta %18ak dio egunean 8 ordu baino gehiago pasatzen dituela.

Gehiegizko erabilerari buruz hitz egiten dugunean, DBHn ez dute uste pantailak gehiegi erabiltzen dituztenik, gurasoek haiek adina erabiltzen dituztelako. Beste nerabe batzuek onartzen dute mendekotasuna dutela, inolako lotsarik gabe normalizatzen dute eta ukatu egiten dute horrek ondorio negatiboak dituela.

Era berean, familietan txip-aldaketa ikusten dugu seme-alabak bigarren hezkuntzara pasatzen direnean. Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 1. mailara, pantailak erabiltzen emandako denbora esponentzialki handitzen dela ikusten dugu, eta ez dugu ulertzen zergatik ematen den aldaketa hori.

Aurten ere etxean zenbat pantaila dituzten galdetu dugu, gehienek diote 6 pantaila baino gehiago dituztela eta askok diote etxean 10 pantaila baino gehiago dituztela. Azterlan askok erakusten dute lotura zuzena dagoela etxean pantaila asko izatearen eta pantailen gehiegizko erabileraren artean. Gainera, pantaila bat baino gehiago aldi berean erabiltzea normala da, adibidez, Netflix ikustea mugikorarekin sare sozialak erabiltzen diren aldi berean.

Gure saioak egiterakoan, pantailen aurrean denbora asko pasatzen dutela konturatzen dira eta hori oso arazo handia izan daitekeela pentsatzen dute, baina uste dugu begizabaltze hori, momentuko kontzientzia hori, hor geratzen dela, haien familiek ez dituztelako jarraibide eta ekintza osagarriak etxean.

Errespeturik gabeko ohiko jarrerak

DBHko ikastetxe gehienetan, oro har, errespeturik gabeko portaerak gora egin duela nabaritzen dugu, eta “gela zailen” kopuruak gora egin du. Gela zailen izena ez diegu ematen etengabe isiltasuna eskatu behar ditugun gelei, asko baitira, baizik eta saioak ematea ezinezkoa den gelei, etengabeko errespetu faltak – gurekiko, haien arteko eta irakasleekiko – eta etenaldiak direla eta. Etengabeko errespetu faltak, eten gabe 5 minutuz entzuten egoteko ezintasuna, ondokoarekin lasai hitz egitea desafiozko izaerarekin klasea ematen saiatzen ari diren irakasleei begiratzen dieten bitartean, ikasleen arteko irainak, tutoreekin ahozko liskarrak. Ikastetxe askotan tutoreak ez direla ordena jartzeko gai eta ez dakitela zer egin sinesgaitz eta kezkatu ikusten dugu.

Martxoan, “gela zailak” zenbatzen hasi ginen (bertan sartzen ditugu saioa ematea ezinezkoa den eta klasetik atera ginen gela kopurua), eta bi hilabete eta erdian bisitatu genituen 600 klaseetatik 11 izan ziren. Hiru aldiz geletatik joan behar izan genuen eta beste zortzitan joateko zorian egon ginen. Gela batzuetan hiru irakasle egon behar dira ikasleek gutxieneko arreta eskaini dezaten eta etengabe errespetu faltak izan ez ditzaten.

Gorakada hori, duela 5 urtetik pixkanaka nabaritzen ari garena, pandemiaren ondoren larriagotu egin zen. Uste dugu hainbat faktorek eragiten dutela geroz eta gehiago horrelako gelak egoteko, eta ziur gaude arrazoi horietako batzuk hauek direla: nerabeek gero eta denbora gehiago ematen dute sare sozialetan eta pantailekin, mundu digitalean geroz eta toxikotasun handiagoa dago, eta indarkeria hori barneratu eta erabiltzen dute, baita pantailetatik kanpo ere.

Lehen hezkuntzan bezala, nerabe askok erabateko ezagutzaren, kontrolaren eta boterearen sentsazio faltsua dute, eta askotan harrokeriarekin eta mesprezuarekin ongietorria egiten digute. Harrokeria horren ondorioz, ez dira gai sare sozialetan aurki daitezkeen arriskuak antzemateko, orainaldian soilik pentsatzen dute, eta ez etorkizunean, beren oraingo ekintzek izan ditzaketen ondorioak kontuan hartu gabe, edo planteatu gabe ere ondorioak egon daitezkeela. Batzuetan dena ukatzen digute, baita delituak diren edo ez diren ekintzak ere, eta gauza zentzugabeak pentsatzera iristen dira, hala nola, haiek delitua ez direla uste badute edo ados ez badaude ez dela ezer gertatuko. Kasu gehienetan, ez guztietan, prestakuntzan ikusten dugu nola harritzen diren, elkarren artean begiratzen duten, jarrera aldatzen duten, eta batzuetan galdetzen digute ea itzuliko garen, oso interesgarria iruditu zaielako.

Gehien erabiltzen diren sare sozialak TikTok, Instagram eta Youtube dira. WhatsAppi dagokionez, askok diote batez ere familiarekin komunikatzeko erabiltzen dutela. Gero eta nerabe gehiagok Telegram erabiltzen dute, oro har pornoa ikusteko, online apustuak egiteko, kriptotxanponetan inbertitzeko, eta ordainpeko plataformetako edukiak doan ikusteko.

Delituak

Beste pertsona batzuen irudiak eta informazio pertsonala partekatzea ohikoa da. Ikastetxe guztietan, guztietan, meme eta sticker ugari daude gelako ikaskideen eta irakasleen irudiekin. Kasu batzuetan, ikasleek irakasleak grabatzen dituzte ikasgelan edo korridoreetan, eta grabaketak instagramera igotzen dituzte. Indarkeria asko ikusten eta partekatzen dute, batez ere benetako borrokak. Ohikoa da haien artean borroka bilatzea, grabatzea eta zabaltzea. Askotan, berdinen arteko borroka bezala azaltzen direnak pertsona jakin batzuen aurkako erasoak izaten dira. Halaber, ohikoa da Instagrameko ikastetxeetako txutxu-mutxuen kontu anonimoak geroz eta gehiago ikustea. Kontu horietan, ikastetxe horietako adingabeak aipatzen dira, zurrumurruak

eta gezurrak partekatzen dituzte, eta, batzuetan, adingabeen informazio pribatua ere erakusten da.

Lehen esan dugun bezala, adingabe asko harritzen dira egiten dituzten ekintza asko delituak direlako, inork ez die azaldu interneten zein ekintza diren delitu, eta ez dakite horrek zein ondorio dituen. Delitu bakoitzak ze ondorio penal izan dezakeen galdetzen diegunean, ondorioa 30€ ordaintzea dela esan ohi digute. Klase batzuetan, delituak eta ondorioak azaltzen ditugun bitartean, entzun egiten da “a ze kaka, ezin da ezer egin”. Kasu batzuetan zaila egiten zaigu ulertaraztea ados ez egon arren, delituren bat egiten badute ondorioak berdin jasango dituztela.

Identitatearen ordezkapen asko ikusten ditugu. Batzuk txantxa txarrez mozorrotuak, beste batzuk ordeztutako pertsonen ospea kaltetzeko asmo esplizituarekin. Irakasleen ordezkapenak ere ikusi ditugu.

Zibersegurtasuna

Deigarria egiten zaigu antibirusa oso gutxik erabiltzea eta oinarrizko ekintzak egiten ez jakitea, hala nola, segurtasun-kopiak edo oinarrizko doikuntzak, edo sare sozialek beren burua babesteko eskaintzen dituzten funtzioak ez ezagutzea. Berriz ere egiaztatzen dugu (gizartean ideia hori modu orokortuan sortu bada ere), gezurra dela nerabeek informatikaz eta sare sozialez asko dakitela, asko kontrolatzen dutela, ez da egia. Askok erabiltzen dituzte sare sozialak, smartphoneak eta interneta, baina oinarrizko ekintzak baino ez dakite egiten. Pixka bat sakontzean ia guztiak galtzen dira.

Askok ekintza arriskutsuak egiten dituzte, hala nola aplikazio faltsuak eta doakoak deskargatzea edozein lekutatik, eta gehienek pirata aplikazioak erabiltzen dituzte doan direlako, nahiz eta gomendioa ez erabiltzea den, gehienek malwarea edo birusak dakartzatelako. Adibide gisa anekdota bat kontatzeagatik, DBHko ikasle batek esan zigun Spotify Premium pirata zuela, baina antibirusak ez ziola erabiltzen uzten. Zer egin zuen galdetzean, antibirusa desinstalatu zuela esan zuen.

Pornografia

Nerabeen pornografia-kontsumoak gora egin du urtetik urtera. Ez dute inolako lotsarik pornografia ikusten dutela onartzeko, batez ere mutilek, eta ohikoa ez den arren, esaten digute nerabeek beren sexu-praktikak Instagrameko istorioetan argitaratzen dituztela norbaitek salatu arte edo Instagramek zer eduki mota den detektatu eta blokeatu arte.

Pornografia bidaltzeak eta jasotzeak ere gora egin du. Askotan nahi gabe jasotzen da, eskatu gabe, baita haur pornografia ere, protagonistak nerabeak baitira. Haur-

pornografia delitua dela eta horren ondorioez hitz egitean, nerabeak zuri geratzen dira eta klase gehienetan beren artean begiratzen hasten dira. Ez dugu ulertzen nola familiek ez duten parte hartzen gai honetan, smartphone-en erabilera heziz edo erabilera mugatuz; nerabe horietako asko DBHko lehen mailakoak dira. Gure ustez, familiek ez dakite nerabeek zer egiten duten mundu digitalean.

Adibide bat jartzearen, ikastetxe batean WhatsApp-eko talde batean DBHko bigarren mailako nerabe baten bideo bat heldu batekin sexu-harremanak izaten partekatu zela esan ziguten. WhatsAppeko talde horretan, ikasleetako bat aitaren telefonotik sartzen zen eta aitak ikusi zuenean salatu egin zuen. Baina hori gertatuizan ez balitz, uste dugu bideo hori leku gehiagotan partekatuko zela eta beste bideo asko bezala sekretupean gordeko zela.

Nerabeen arteko sexortsio-kasuak ikusten jarraitzen dugu. Kasu horietan, nerabe batek sexu-izaerako irudiak eta bideoak bidali dizkion beste pertsonari xantaia egiten dio, eta nahi duena egiten ez badu, argitaratzearekin mehatxatzen du. Kasu horiek DBHko maila guztietan gertatzen dira, baita lehenengo mailan ere.

Zentro askotan esan digute mundu digitalarekin lotutako arazo oso larriak egon direla, baina ez dute zer gertatu den zehaztu nahi, eta ikusten ari gara lehen DBHko 3. edo 4. mailanematen ziren arazo edo delitu asko, orain DBHko 1. eta 2. mailetan gertatzen direla.

Desinformazioa

Aurreko urteetan bezala, nerabe batzuek lan egin gabe dirua irabazteko Sugardaddy bat lortzea modu onargarria dela uste dute. Sugardaddy-ak diru asko duten gizon helduak dira, eta neska gazteak bilatzen dituzte ekonomikoki zaintzeko "konpainiaren" truke. Gauza garestiak erosten dizkiete, bidaietara eramaten dituzte, unibertsitatea ordaintzen diete sexuaren truke.

Prostituzio mota hori modu erromantikoan saltzen ari dira sare sozialetan, eta nerabe askok dirua "lan egin gabe" irabazteko Sugardaddy bat bilatzen dute, haien esklabo sexualak bihurtuko direla konturatu gabe. Prostituzioak benetan zer esan nahi duen azaltzean, ideia oso azkar aldatzen dute, baina sare sozialen bidez nerabe asko desinformazio askorekin bonbardatzen dituzte, eta inguruan ez badagon inor gauzak ondo azaltzeko, oso arriskutsuak diren ondorioak ateratzen dituzte.

Lan egin gabe dirua erraz irabaztearekin lotutako beste desinformazio mota bat apustuak eta kriptotxanponetan inbertsioak dira. Sare sozialetatik behin eta berriz bidaltzen den mezua da dirua azkar eta erraz irabazi daitekeela, eta "lan tradizionalarekin bizitza irabazten baduzu tontoa zara". Streamer eta influencer askok horrela esaten dute argi eta garbi, iruzurrekin eta gezurrekin jarraitzaile gehiago izateko.

Online kirol-apustuak gora doaz. Apustu digitalen negozio askotan kontrolik ez dagoenez, 18 urtetik beherako nerabeek arazorik gabe apustu egin dezakete. Apustu baten ezaugarri nagusia amaiera erabat aleatorioa bada ere, Interneten apustu seguruak egiteko aholkuak eman ditzaketela ziurtatzen duten pertsona eta enpresa asko daude. Hori bai, haren zerbitzuetara harpidetzen bazara eta ordaintzen baduzu. Iruzur horien ondorioz, pertsona askok apustuak diru-sarrerak lortzeko modu bat izan daitezkeela pentsatzen dute, baina ez da egia.

Gauza bera gertatzen da kriptotxanponetan egiten diren inbertsioekin. Kriptotxanpon batek bere balioa handitzeko, pertsona gehiagok bertan inbertitu nahi izatea modu bakarra da. Horregatik, inbertitu duten pertsona guztiek interes ekonomikoa dute pertsona gehiagok inberti dezaten, interes berekoia da eta edozer asmatzen dute jende gehiagok inberti dezan. DBHko 3. eta 4. mailako nerabeek kriptotxanponetan inbertitzeko eta online apustuak egiteko erabiltzen dituzten aplikazioak erakusten dizkigute. Hori dela eta, apustuei eta bideojokoei buruzko prestakuntza berri bat emango dugu datorren ikasturtean. Izan ere, haien familietan ez dakite zertan ari diren, inork ez die ohartarazten iruzur egiten ari zaizkiela, eta nerabeen arteko ludopatiaren arazoa gero eta handiagoa da, batez ere hemen [Espainiak Europako nerabeen ludopaten tasarik altuena baitu](#).

Ezezagunak

Joaten garen gela guztietan kontaktzen ez diguten arren, deigarria egiten zaigu gero eta nerabe gehiago beren adina dutela dioten ezezagunekin kalean geratzea, eta, eguna iristean, pertsona helduak agertzea. DBHn ikasle gehienek beste pertsona batzuk zirela zioten pertsonen profil faltsuak aurkitu dituzte, eta oso ohikoa da ezezagunekin hitz egitea eta informazio pribatua ematea.

Osasun mentala

Nerabeak ez dira jabetzen sare sozialen gehiegizko erabilerak nola eragiten dien beren autoestimuari eta osasun mentalari, nahiz eta egunero pairatzen duten, batez ere neskek. Badakite pertsona askorengan ondorio negatiboak daudela, baina ez dute beraien burua hor ikusten, nahiz eta haiekin hitz eginda argi geratu haiek ere ondorio negatiboak jasaten dituztela.

Kezkagarria da irudiak eta bideoak argitaratzen dituzten nerabe (eta heldu) gehienek filtroekin egitea, haien burua hobeto ikusteko: filtroak larruazala samurrago ikusteko, hortzak zuriago ikusteko, begiak politago ikusteko, aurpegiak ederrago ikusteko... Sare sozialetan bideoak eta irudiak argitaratzen dituzten nerabe gehienek (eta helduek) ez dute autopertzepzio positiborik, eta haien burua ondo ikusteko filtroak erabili behar dituztela uste dute. Ez bere burua hobeto ikusteko, baizik eta bere burua ondo ikusteko. Sare sozialetako algoritmoek lehentasuna ematen diete onartutako

edertasun-kanonetara gehiago egokitzen diren pertsonen edukiei, gehiago erakusten dituzte eta sare sozialetan gehien ikusten direnak perfektuak diren gorputzak, aurpegiak, larruak, begiak, hortzak... edo perfekziora hurbiltzen direnak dira. Hori dela eta ezinbestekoa da lehenago edo geroago gure gorputza horiekin alderatzen hastea.

Hainbat probintzian anorexia kasuak ikusten ari gara, eta horietan lehenengo ekintzetako bat nerabeei sare sozialak kentzea da. TikTok edukiaren ia erdia pisu-galerarekin lotuta dago.

Irakaslegoa

Oro har, ez dute ezagutzen adingabeak erabiltzen duten mundu digitala. Irakasle gazte batzuek izan ezik, gehienek ez dituzte kontuan hartzen haurrek eta nerabeek jolasten dituzten jolasak eta jolas horien dinamikak, edukiak eta arriskuak. Sare sozialetan antzeko zerbait gertatzen da. Nahiz eta irakasle askok sare sozialak erabiltzen dituzten, ez dakite adingabeek nola erabiltzen dituzten eta sare sozialetan nerabeek aurre egin behar dieten arrisku asko. Hori bai, bertatik bertara ikusten dute adingabeek ez dituztela ondo erabiltzen eta horrek zer ondorio dakartzan.

Irakasleek duten ezjakintasun orokorraren ondorioz, guztiek saioetan arreta jarriko zutela uste genuen. Gure harridura nahiko handia izaten da irakasle askok saioetan jarrera pasiboa eta negatiboa dutela ikusterakoan. Batzuetan saioetatik alde egiten dute, bertan egon behar dutela jakin arren. Beste batzuetan, ordenagailuan hasten dira lanean, esaten dugunari edo ikasleek kontatzen dituzten bizipenei jaramonik egin gabe. Ez dakigu ikastetxeetan egon ohi diren presioak eta lan-kargak jarrera horietan eragiten duten ala ez. Era berean, gehienetan guztiz kontrakoa gertatzen dela esan behar dugu, irakasle askok modu aktiboan parte hartzen dute ikasleekin egiten diren saioetan.

Irakasleentzat ematen ditugun saioei dagokienez, batzuetan haiek prestakuntza jasotzen dutenean ikasleen jarrera berak dituztela ikusten dugu. Adibidez, urrutien dauden aulkietan esertzen dira, edo prestakuntzan zehar elkarrekin hitz egiten hasten dira, jaramonik egin gabe. Bortitz samarra egiten zaigu prestakuntzetara joan eta arretarik jartzen ez duten irakasleei errieta egitea edo zerbait esatea. Denok gaude uneren batean nekatuta, eta ulertzen dugu ikastetxe batzuetan irakasleak prestakuntzetara joatera behartzen dituztela, baina uste dugu errespetua funtsezkoa dela, are gehiago irakasle horiek beren ikasleei berdina eskatzen dietenean.

Familiak

laz bezala, oso familia gutxi joaten dira prestakuntzetara, eta ia ez dugu lortzen ikastetxe askotan 10eko taldeak ateratzea saioa emateko. Parte-hartze handiena duten zentroetan 20-30 pertsona etortzen dira, baina asistentzia-maila hori oso gutxitan eta ikastetxe handietan ematen da. Irakasleek esaten digute, eta guk ere horrela ikusten dugu, beti joaten direla kontzientziatuago dauden familiak eta gehien behar dutenak, adibidez gehiegizko eta kontrolrik gabeko erabilerarekin arazo gehiago dituzten ikasleen familiak, ez dira etortzen.

Uste dugu familia askok irtenbide magiko bat bilatzen dutela beren seme-alabak hainbeste denbora pantailen aurrean ez pasatzeko, eta ez dira jabetzen haiek ere hori bultzatu edo bultzatzen jarraitzen dutela: alde batetik, beraiek pantailak erabiltzeko ematen duten adibidearekin, eta, bestetik, adingabeei txikiak zirenetik mundu digitalean mugak eta arauak falta zaizkielako. Guraso izatea ez da inoiz erraza izan,

eta denbora digital hauetan, heziketa eraginkorrak eskatzen duen denbora eta ahalegina handiagoa da.

Era berean, familiek haur eta nerabeei pantailak asko erabiltzen uzteko arrazoietako bat adingabeak aspertuko diren beldur izatea dela uste dugu. Asperduraren beldur moduko bat dago asperdura gure garapenaren parte denean.

Ikastetxe batzuetako saioen ondoren, guraso-elkarteek ekimen bat bultzatzen dutela ikusteak pozten gaitu: lehen hezkuntzako geletan familiak ados jartzea eta smartphonea denek batera entregatzen saiatzeko ahalegina egitea. 14 urtera arte itxoitea edo gutxienez, lehen hezkuntza amaitu ondoren entregatzea.

Gomendioak

Familientzako gomendioak

Adingabeek pantailak egoki erabili ditzaten (telebistetatik smartphoneetaraino edozein motatako pantailak), txikiak direnetik oinarrizko erabilera-arauak ezartzea komeni da:

- Adin bakoitzarekin ikusi edo erabili daitekeena: Programak, app-ak, gailuak, bideojokoak...
- Pantailak zenbat denboraz erabil daitezkeen. Zenbat eta denbora gutxiago, orduan eta hobeto, eta pantailen erabilera astebururako uztea gomendatzen da. Hau bezain garrantzitsua da aisialdirako pantailen alternatibak garatzea, pantailarik gabe entretenitzen ikas dezaten.
- Non erabil daitezke pantailak? Etxeko leku amankomunetan erabiltzea eta kargatzea gomendatzen da, adingabeen gelak saihestuz. Egiatzatuta dago etxean zenbat eta pantaila gehiago egon, orduan eta gehiago erabiltzen direla, eta etxean ahalik eta pantaila gutxien izatea gomendatzen da.
- Erabilera egoki baten eredu izatea. Ezinezkoa da pantailen erabilera egoki eta kontzientean heztea, helduek ez badiote beren buruari aplikatzen.
- Sare sozialak eta smartphoneak erabili ahal izateko adina dutenean, familiek adingabeei erabiltzeko aukera ematen badiete, honako hau gomendatzen da: lehenengo urtean gutxienez sare sozialetan familia-kontu bat sortzea. Familia-kontu hori familiek ezartzen duten denboran eta familien ikuskapenarekin erabiltzea, hau da, familiek eurekin egon beharko lukete erabiltzen dituzten bitartean. Adingabeei sare sozialak kontzienteki erabiltzen eta arriskuak prebenitzen irakasteko modu bakarra da. Hurbilketa desegokiak detektatzen eta blokeatzen irakatsi behar diegu, desinformazioa eta eduki kaltegarriak bereizten, modu positiboan komunikatzen, ekintza batzuk delituak direla eta ondorio penalak zeintzuk diren jabetzen, pornografiak sexura hurbiltzeari nola eragiten dien, pribatutasunaren garrantziaz jabetzen, ezezagunekin ez hitz egiteak dituen arriskuak antzematen, ikusten dugunarekin eta jarraitzen dugun pertsonekin kritiko izatea zein garrantzitsua den... irakatsi behar diegu.

Geletako familien arteko akordioa

Adingabeak smartphone propiorik gabe sozializatzeko gai ez izateko beldurrak eta/edo horiek erabiltzearekin lotutako arriskuak ez ezagutzeak, familia askok smartphoneak gero eta gazteago oparitzea eragiten duela ikusten dugu. Horrek itxaron nahi duten familiengan oso presio handia eragiten du eta itxoitea askoz ere zailagoa egiten zaie.

Hori dela eta, duela denbora bat “Smartphoneak eta sareak 14 urtetik aurrera” ekimena martxan jarri genuen. Ideia lehen hezkuntzako geletan familiek taldeak osatzea da smartphona entregatzeko adina adosteko (oso zaila da gela bakoitzeko familia guztiak ados jartzea) eta 14 urte bete arte smartphoneak eta sare sozialak erabiltzen ez uzteko. Gure webgunean konpromiso-dokumentuaren adibide bat aurki dezakezue, baita ikastetxeetan gauzatzeko gomendioak ere.

Gailuak erabiltzeko familien eta adingabeen arteko akordioa

Adingabeek smartphoneak edo gailu digitalak erabiltzeko adin egokia dutenean, horiek erabiltzeko, oinarrizko baldintzak ezartzen dituen kontratu moduko bat izatea gomendatzen da. Funtsean, oinarrizko erabilera-arauak dira, baina helduek ere konpromisoa dute sareen eta smartphonen arriskuak eta jardunbide egokiak ezagutzeko. Helduek ere sare sozialak adingabeekin batera ezarritako denboran erabiltzeko eta adingabeei arreta emateko denbora izango dutenaren konpromezua hartzea komeni da. Kontratu-adibide bat duzue gure webgunean.

Ikastetxeentzako gomendioak

Sare sozialak

Familiei egiten diegun gomendioetako bat sare sozialetan haurren irudirik ez jartzea da. Ez dakigu nor ikusiko dituen, ezta ere zer egingo duten irudi horiekin. Bitxia da orain, jarraibide horiek serio hartzen dituzten familiak ikusten hasi diren honetan, ikastetxeek, batez ere lehen hezkuntzakoek eta haur hezkuntzakoek, sare sozialetan etengabe irudiak eta bideoak argitaratzea, non beren haurrak jolasten, klasean, jarduera desberdinak egiten... agertzen diren. Adingabe horien familiek baimena eman badute ere, kezkarria da ikastetxe askok arriskurik ez ikustea hori egitean, batez ere sare sozialetan kontu publikoetan egiten dituztelako.

Ikastetxe askok sare sozialak erabiltzen dituzte irudiak eta bideoak familiekin partekatzeko eta publizitatea egiteko, familia eta ikasle gehiago erakartzeko, batez ere matrikulazio-garaian. Horregatik, ikastetxeetako sare sozialetako kontu gehienak publikoak dira, edonork ikus ditzake bertan jartzen diren irudiak eta bideoak, eta, ondorioz, edozein gera daiteke material horrekin eta nahi duen moduan erabil dezake.

2019an, Jordi Pérez Colomé El País egunkariko erreportariak artikulu beldurgarri bat argitaratu zuen, "Horrela amaitzen da neskato baten bideo inuxentea Youtubeko zerrenda erotiko batean". Artikulu honetan pederastak nola haurren irudiak eta bideoak biltzen dituzten, haurren gauzak egiten (jolasten, kirola egiten, ikasten) eta bideo-zerrendak sortzen dituzten deskribatzen du. Bertan, iruzkin lizunak egiten dituzte, "igerileku batean goiko partea ez duen neska bat ikusten da", "x minutu horretan mutiko bat gimnasia egiten ikusten da eta ez dakit zer markatzen zaio"... eta iruzkin horien bidez bere perbertsioak partekatzeko komunitateak sortzen dira. Pederastek, familiek eta ikastetxeek argitaratzen dituzten irudi horiek erabiltzen dituzte material mota hori sortzeko. Hori dela eta, Youtubek haurrak agertzen diren bideo gehienetan iruzkinak blokeatu zituen 2019ko hasieran.

Ikastetxeek partekatutako irudien kasuan, harrapari horiek eta irudiak ikusten dituen edonork badakite zehazki non aurki ditzaketen haur horiek. Hori da sare sozialetan zehar dabiltzan haurren irudiak nola erabil daitezkeen erakusten duen adibideetako bat.

Ikastetxeek adin txikikoen irudirik erakutsi gabe promozionatzeko moduetan pentsatu beharko lukete, edo adingabeen aurpegiak pixelatzera edo lausotzera ohitu, nahiz eta familien baimena izan horiek argitaratzeko. Ez da erraza, bideo bat, argazki batzuk beti geratzen dira alaiago haurrak jolasean eta barrez agertzen badira, baina denon artean publizitatea egiteko modu berriak garatu beharko genituzke.

Familiekin irudiak partekatzeko, ikastetxeen webguneetako gune pribatu bat erabiltzea gomendatzen da, familiak bakarrik sar daitezzen. Argazkiak partekatzearen helburu

bakarra familiekin partekatzea bada, ikastetxeek Instagrameko kontu pribatuak izan ditzakete eta jarraitzaileak ikastetxeko familiak bakarrik onartu ditzakete.

Ikastetxe askotan arazoak ikusten ditugu kirol-jarduerak edo eskolaz kanpoko jarduerak egiten direnean, familiek argazki asko ateratzen dituztelako (adingabe askoren argazkiak, ez bakarrik haien seme alaben argazki edo bideoak), eta edozein modutan partekatzen dituztelako ondorioetan pentsatu gabe. Eskertzekoa da ikastetxe batzuk dagoeneko horri buruzko neurriak hartzen aritzea eta jarduera horietan argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea ez ahalbidetzea, baizik eta haiek egitea eta gero web orriaren bidez edo modu pribatuagoan partekatzea.

Era berean, garrantzitsua da ikastetxe guztiek, familiekin egiten dituzten bileretan, adingabeen irudiak sare sozialetatik kanpo mantentzearen garrantziaz hitz egitea eta guztiok kontzientzia gehiago hartzea.

Smartphonearen erabileraren araudia

Eskola orduetan ikastetxean smartphonearen erabilera araututa duten DBHko ikastetxeak ikusten ditugu. Eramatea ez da debekatzen baina eskola-orduetan ezin da erabili, bakarrik joateko edo itzultzeko bidean erabiltzeko eraman daiteke. Oso zaila da erabilera kontrolatzea, baina norbaitek erabiltzen duela ikusten badute, konfiskatu egiten dute. Ekimen ona iruditzen zaigu.

Lehen hezkuntzako ikastetxe batzuetan smartphonea duten adingabeek ikastetxeetara iristean tutoreei ematen dietela, eta hark irteeran itzultzen diela ikusten dugu. Ekimen ona iruditzen zaigu.

Ikastetxe batzuetan, oso gutxitan, debekatuta dago smartphoneak eramatea (baina ez tekladun telefono mugikorrak). Hau ere ekimen ona iruditzen zaigu.

Hala ere, berriro ikusten dugu ikastetxeei familiek egin beharko lituzketen gauzak kudeatzeko zama jartzen zaiela. Ez dugu beharrik ikusten adingabe batek, lehen edo bigarren hezkuntzakoak, smartphone bat ikastetxera eramateko, eta ez dugu ulertzen nola hainbeste familiek hori onartzen duten. Familiaren batek adingabearekin harremanetan jarri behar badu, ikastetxera dei diezaioke, eta adingabeek egoera espezifikoenatik joan-etorrietan lokalizatuta egon behar badute, nahikoa da Internet eta sare sozialik gabeko tekla-telefonoa izatea mezuak bidali eta deitzeko. Familiek ez dute ulertzen adingabeek ez dutela behar adinako heldutasunik tresna hori behar bezala erabiltzeko, eta nahiz eta uste duten seme-alabak oso arduratsuak direla (eta, ziurrenik, arduratsuak direla), haur eta nerabeak izaten jarraitzen dute eta ez dute modu arduratsuan erabiltzeko gaitasunik.

Eskertza

Eskerrak eman nahi dizkiegu irakasle guztiei, bai eta ikastetxe guztietako zuzendaritza-taldeei ere, egunero erakusten duten ahalegin eta dedikazioagatik, ikasteko duten gogoagatik eta ikasleak mundu digitalean egunero dituzten mehatxu eta arriskuetatik babesteko erakutsi duten jarreragatik.

Guzti hori, nahiz eta egunero lan asko egiten duten, familiek eta gizarteak ezartzen dizkieten presio eta exijentzia neurrigabeek areagotuta. Bere lana ez da erraza eta beti oharkabean gelditzen da.

Halaber, eskerrak ematen dizkiegu hezkuntza digitalaren beharraz kontzientziatuta dauden familia guztiei, egunero egiten duten ahaleginagatik eta aparteko lanagatik. Guraso izatea ez da inoiz erraza izan. Sare sozialekin, online jolasekin, smartphoneekin eta gainerako gailuekin aparteko zailtasun bat gehitu da, eta gainerako familien inkontzientziak, ezjakintasunak eta permisibitateak are zailago egiten dute beraien lana, ulertezintasun eta bakardade-sentimenduak sortuz. Animo, ez zaudete bakarrik eta oso ondo ari zarete.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Vital Fundazioari hezkuntza digitalarekin eta interneten adingabeak babestearekin duen konpromisoagatik, eta gugan jarri duen konfiantzagatik hezkuntza digitaleko "Har ezazu kontrola" programa Araban koordinatu eta aurrera eramateko.